

HIRUGARREN BORONDATEA

Martin Agirregabiria 1587. urtean zendu zen, bere ohean, 82 urte zituela. Astebete lehenago, burua artean ondo zeukala aprobetxatu nahian —eta ahaide guztiek, apaizak eta alkateak lagundurik—, aditzera emanak zituen bere azken borondateak: hiru, guztira.

Lehendabizikoa aski arrunta izan zen, bai eta erraz aurreikustekoa ere: etxea (Igartubeiti baserritzar ederra, inguruko zelai, baso, sagasti eta abarrekin batera) Maria alaba nagusiarentzat izango zen, Joanes premuak erabaki zuenez gero, nerabea zenean, itsasoz itsaso eta portuz portu alderrai ibiltzea, arbasoen moduan lurrari atxikiturik bizi beharrian.

Bigarrena bitxia egin zitzaien denei, baina ontzat eman zuten, ez zien-eta buruhauste berezirik sortuko: handik aurrera, eta etxeak zutik iraun bitartean, familiako lehen semeak edo alabak beti hartuko zuten Martin/Martina izena bataioarekin batera, Agirregabiriaren beraren oroigarri.

Hirugarrena... Hirugarrena benetan estrainioa izan zen, erabat ez-ohikoa. Martin zaharrak galdera hau egin zien senide eta bisitariei:

— Konturatu zarete, sotoan, sagardo-upel handien artean, badagoela beste bat, nabarmen txikiagoa?

Mariak baiezko keinua egin zuen buruaz, eta Martinek jarraitu zuen:

— Bada, barriltxo hori, arroa eskas batekoa, gure osaba Tomasek ekarri zuen, aspaldi-aspaldian, Ameriketatik-edo. Ni umegorria nintzen orduan, baina gogoan ditud haren hitzak: "Upeltxo hau oso preziatua da, zuek uste baino askoz baliotsuagoa. Ez zabaldu inoiz, benetako larrialdi gordin bati aurre egiteko ez bada". Gure aitak zin egin zion hala egingo zuela; neuk ere gauza bera egin nuen etxejaun bihurtzean... Orain, Maria, zeure txanda da: hitz ematen didazu sekula ez duzula irekiko Tomas osabaren upeltxoa, ataka larri-larri batean egon ezean, eta zure ondorengoei ere hauxe bera galdetuko diezula?

Mariak hala agindu zuen; eta, harrezkeroztik, belaunaldiz belaunaldi errepikatu izan zen zina.

Urteak, hamarkadak eta mendeak igaro ziren, eta Igartubeitiko biztanleek behin baino gehiagotan pentsatu zuten upeltxoa zabaltzea, maiz suertatu baitziren egoera txarretan.

1709an, adibidez, erabateko krisia nagusitu zen Gipuzkoan, Ameriketara joan ezinean geratu baitziren bertakoak; horren ondorioz, gosea bazter orotara hedatu zen, batez ere dolarea zuten etxeetara: marinelek jada ez zuten erosten sagardorik euren itsaso-zeharkaldietarako, eta negozio askok porrot egin zuten. Gero etorriko ziren beste aro txar batzuk: 1766ko zerealen matxinada eta ondoko errepresio bortitza, 1794ko gerra Frantziaren aurka (eskerrak Harizpe mariskal baigorriarraren soldadu euskaldunek zerbait utzi zieten bizirauteko! Bestela...); handik gutxira, 1813an, Napoleonen tropek lurraldea arpilatu zuten ihes egin zuten bitartean Iberiar Penintsulatik; gero, bi karlistaldiak etorri ziren, non bi bandoek sarritan jo zuten baserrira, jan-edanaren, diruaren, errekruten edo beste edozeren bila...

Hala eta guztiz ere, nahiz eta hainbat alditan gorriak ikusi, garaian garaiko etxejaunak edo etxandreak beti esan ohi zuen: "Egon, egon... Asaba batek laga zigun upeltxo, egiazko estualdi baterako; baina momentuz ez du gureak egin, aurrera egingo dugu oraingoan ere". Zorionez, etxeak zutik zirauen, sendiarekin batera.

1936an, baina, ataka latza ezagutu zuten. Uztailaren 25ean, militar nazionalek Beasain berenganatu zuten, eta handik heldu ziren errefuxiatuek kontakizun biziki latzak zekartzaten: hilketak, harrapaketak, erreketak... denetarik egiten omen zuten faxistek.

Horrelakoak entzunda, Martina Jauregi ugazabandreak ez zuen beste irtenbiderik topatu: familiakoak eta morroi-neskameak bildu, eta goibel esan zien:

- Ez dago besterik: ireki dezagun antzinako upela. Lagunduko ahal digu!

Esan eta egin. Laster ikusi zuten zer zeukan gordeta: sagardoa! Eta, batek daki nola, edateko moduan zegoen, ehunka urte pasatu arren! Upelaren hondoan, halere, bazegoen beste zertxobait: larruzko zahato moduko bat. Haren barruan, urrezko txanpon batzuk eta gutun moduko bat zeuden. Zer zioen dokumentuak?

Senideok:

Ez dakit zein urtetan bizi zareten. Ziur aski, ni erabat ahaztu nauzue, agian denbora luzea joan delako ni Igartubeitin izan nintzen azken aldetik... Edonola ere, hau irakurtzen ari bazarete, bistan da arriskuan zaudetela. Eta nik, zuen arbaso honek, lagundu egingo

dizuet, nola ez!

Zer egin dugu euskaldunok, historia osoan, lehorrean arazo gaitzak egonez gero? Bada, itsasora jo, itsasoa gehienetan ona izaten delako gurekin, euskal jendearekin.

Baina gatozen harira, astirik galdu gabe: joan zaitezte Ondarroako Andra Mari elizara: zubia, azpia, erdia, +.

Zailtasunik baduzue bertara iristeko, erabili txanponak. Gogoratu, "Diruak malkarrak zelaitzen".

Tomas Agirregabiria

Gauzarik beharrezkoenak idi-gurdira igo, eta bideari ekin zioten, Ondarroarantz. Beharrik, gerra-frontea kilometro batzuetara zegoen!

Bertara heldutakoan, handik egun pare batera, buruari eragin behar izan zioten gogor, "zubia, azpia, erdia, +" horren esanahia argitzekotan. Hainbat ordu eman zituzten hausnarrean, eraikin handi hari begira: beheko hiru zutarriei, ateei, leihoei, teilatuari, gargolei... harik eta Martin txikiak barrez esan zuen arte: "Badakit!". Ostean, elizaren oinarrira hurbilduta, zera azaldu zien gainontzekoei:

- Hauxe da Ondarroako eliza, eta hemengo hau zubi ondoko aldea; bertako oinarrian hiru pilare erraldoi ditu, ezta? Bada, erdikoan bilatu behar dugu gurutzeren bat.

Eta, bai, horrelaxe zen: erdiko pilarearen izkina batean halako marka bat zegoen zizelkatuta, ez oso era nabarmenean. Gurutzedun harria mugitu zuten, esfortzu ikaragarritz, eta bertan beste gutun bat aurkitu zuten, urrezko txanponez beteriko zakuto batekin batera. Eskutitzean, esaldi bakarra:

Ternua, Plazencia, portua; ezker, 250, +

Zer gertatu zen handik aurrera? Itzuri egin zieten gerrako nahigabeei? Ailegatu al ziren Igartubeitikoak Kanadara, Ternua aldera? Topatu ote zuten Tomas osabaren herentzia? Zer ote zuen gorde bere ondorengoentzat? Hori guztia, baina, beste istorio bat da.

MARTIN A.